



## **IKUSKARITZA KOORDINATZEKO ZERBITZUAK EGIN DION INFORMAZIO ESKABIDEARI BURUZ XXXXX ALDUNDIAK EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA.**

### **AURREKARIAK**

**LEHENENGOA:** 2014ko irailaren 19an XXXXX Aldundiak bidalitako irizpen eskabide jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, goiburuan adierazitako gaiari buruzkoa. Aldundiak bidalitako eskabidean honakoak adierazi zituen:

*"XXXXX Aldundiko (aurrerantzean XFA) Lehendakaritza Saileko Langileak Kudeatzeko Zerbitzuak XXXXXko Ogasun eta Finantza Sailaren errekerimendu bat jaso zuen 2014ko maiatzaren 15ean. Errekerimenduak, XXXXX Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 92. eta 93. artikuluek xedatutakoa aintzat hartuta, honako informazioa eskatzen zuen:*

*"Ikuskaritza Koordinatzeko Zerbitzuak antzeman du Laguntza Batzordeak diruz laguntzen dituen zerbitzu odontologikoak ematen dituzten zenbait pertsona edo erakundek iruzur egin dutela. Adierazi ditugun artikuluko horiek kontuan hartuta, eskatu nahi ditugu Laguntza Batzordeak 2009ko eta hurrengo urteetan izapidetu dituen espedienteetako fakturak edo ordainagiriak. Eskatutako informazioa Ikuskapen Zuzendariordetzako zerga agente batek jasoko du eta dagokion diligenzia egingo du. Horrez gain, zerga arloan garrantzia duen edozein informazio ere eskatzen dugu, garrantzitsua bada zerga arloko ustezko irregulartasunak antzemateko".*

*Eskatutako informazioak datu pertsonalak eduki ditzakeenez faturetan, ordainagiritan edo beste edozein euskarritan, eta bereziki babestutako norberaren edo hirugarrenen datuak ere eduki ditzakeenez, eta ikusita errekerimenduak ez duela eskatutako informazio multzotik aukeraketa egiteko irizpiderik adierazten, eskatu nahi diogu Datuak Babesteko Euskal Bulegoari irizpen bat egiteko esateko ea errekerimenduak oinarri sendoa duen, ea datu pertsonalak komunikatzea bat datorren datuak babesteari buruzko araudiarekin, eta, hala badagokio, ea zein den datu komunikazioa behar bezala egiteko modua".*

**BIGARRENA:** Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

*"Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea".*

Beraz, araudi hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.



## KONTUAN HARTZEKOAK

### I

Kontsultaren xede den gai hau aztertzeko, jakin behar dugu ea datuak babesteko arloko araudiarekin bateragarria den zerga ikuskaritzari lagatzea laguntza publikoak jaso dituzten zerbitzu odontologikoei buruzko fakturretan eta ordainagiritan dagoen informazioa. Beraz, alderatu egin beharko ditugu, batetik, Ogasunari informazioa emateko obligazioa, eta, bestetik, osasun datuek eta sekretu medikoak duten babes berezia.

Kasu honetan datuak daude zerbitzu odontologikoak ematen dituzten pertsona edo entitate batzuk egindako fakturretan, eta zerbitzu horiek XXXXX Aldundiko (aurrerantzean XXA) Laguntza Batzordeak izapidetutako laguntzak jaso dituzte. XXXXXko Ogasun eta Finantza Sailak BFAko Lehendakaritza Sailari eskatu dizkio dokumentuak, aldundiak ikuskaritza eginkizuna betetzeko.

Eskatu dituzten dokumentuak dira *Laguntza Batzordeak 2009ko eta hurrengo urteetan izapidetu dituen espedienteetako fakturak edo ordainagiriak*. Horrez gain, *zerga arloan garrantzia duen edozein informazio ere eskatzen dute, garrantzitsua bada zerga arloko ustezko irregulartasunak antzemateko*.

Eskatutako informazioa ematea, datuak lagatzea edo datuak komunikatzea da. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 3 i) artikulua xedatzen duenez, interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea datuak lagatzea edo datuak komunikatzea da, eta datuak lagatzeko edo komunikatzeko bete behar den arau orokorra da ukituaren adostasuna behar dela (DBLOren 11.1 artikulua). Arau orokor horrek salbuespen batzuk ditu eta 11.2. idatz-zatian daude. Guretzat garrantzitsuena a) letran dago jasota:

*"Lege batek baimentzen badu lagapena".*

Zerga arloko legeek ogasunari helmen handiko ahalak aitortzen dizkiote, ukituen adostasunik gabe ere informazioa bildu ahal izateko adinakoak.

Ogasun eta Finantza Sailak dio XXXXX Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua dela lege gaitzailea, hau da, Foru Arauaren 92. eta 93. artikulua.

92. artikulua pertsona fisikoen edo juridikoen eta publikoen edo pribatuen informazioa emateko obligazioa arautzen du; eta tributu betebeharrun guztiek dituzten betebeharrak ezartzen dituzte, besteak beste, tributu betebeharrunek dituzten zerga betebeharrak betetzeari buruz gorde behar dituzten liburu, erregistro, dokumentu eta informazio guztia ematea eta ikuskapenen eta administrazio egiaztapenen berri ematea.

2/2005 Foru Arauaren 93. artikulua, hain zuzen ere, zerga arloko lagapenei buruzkoa da, eta, besteak beste, administrazio publikoetako organoei agintzen die zerga administrazioari jakinarazi behar dizkietela xedapen orokorren bidez edo banako errekerimenduen bidez eskatzen dituen zerga-ordainketarako datu, txosten eta aurrekari guztiak, eta berari eta beraren agenteei laguntza, sorospena eta babesa eman behar dizkietela euren eginkizunak bete ditzaten; eta, horrez gain dio zerga administrazioari halako datu lagapenak egiteko ez dela behar izango ukituaren adostasunik. Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 legeak ere horixe jasotzen du.



Beraz, kasu honetan badago datuak lagatzeko lege babesa, eta ez da behar ukituen adostasunik zerga ikuskaritzari datuak lagatzeko, baldin eta informazioak zerga-ondorioak baditu eta behar bezala arrazoituta batean oinarrituta badago. Beraz, datu lagatzeak DBLOren 11.2 a) artikulua babesa du.

Zerga-ondorioak izatea funtsezko kontzeptu juridiko zehaztu gabea da, eta funtsezkoa da jakin ahal izateko ea kontsultaren xede diren datu tratamenduak oinarritzko eskubidearekin ondo ezkontzen diren ala ez. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak hainbat irizpenetan aztertu du kontzeptu horri buruz dagoen jurisprudentzia, eta azpimarratzeko modukoa da Auzitegi Gorenaren 2011ko azaroaren 3ko Epaia. Hona hemen epaiaren hirugarren oinarri juridikoa:

*"Sala honek 2003ko azaroaren 12ko Epaiaren (1320/2002 zk.ko kasazio errekurtsua) definitu zuen zerga ondorioaren kontzeptua: "zerga-ondorioak izatea zer den ulertzeko, esan behar da gertakari edo egintza batzuek duten tasun bat dela, administrazioei laguntzen diena jakiten ea zenbait pertsonak betetzen duten, bakoitzak bere ekonomia-ahalbidearen eta boterearen arabera, gastu publikoari aurre egiten laguntzeko betebeharra (Konstituzioaren 31.1 artikulua); eta ez badute betetzen, legeak agintzen duenaren arabera jokatu. Eta laguntzeko modua "zuzena" izan daiteke (eskatutako informazioa zergapeko egitatei buruzkoa denean, hau da, legeak zerga bat lotzen dien jarduerari, titulartasunari, egintzei edo gertakari buruzkoa) ala "zeharkakoa" (eskatutako informazioa alboko egintzei buruzkoa denean, hau da, ustez deklaratu gabeko zergapeko egitateak bilatzeko administrazioarentzat lagungarri izan daitezkeen aztarnei buruzkoa denean; edo, besterik gabe, geroko ikuskaritza lana egiteko balioko duena; ezin baitugu ahaztu, lan horrek ezin dituela bere subjektu pasibo guztiak harrapatu, alde materialetik ezinezkoa delako, batez ere, pertsona jakin batzuekiko.)" [4, Z. O.; gauza bera dio 2007ko martxoaren 14ko Epaiak (1320/2002 zk.ko kasazio errekurtsua), 2. Z. O.]*

Salak 2009ko ekainaren Epaiaren (898/2003 zk.ko kasazio errekurtsua) ere eman zuen eskatutako informazioaren zerga-ondorioari buruz zuen iritzia, eta adierazi zuen 2001/02/03ko Epaiak kontzeptu zehaztu gabe horren esanahiaren eta helmenaren gainean adierazi zuela *"informazioa eska daitekeela zergei ezartzeko baliokoa edo eraginkorra bada, baina esaldiak dioena modu zabalean ulertuta, zeren arauak ez baitu esan nahi zerga-harreman zehatzak egiaztatu behar direnik, arauak lotu nahi duena baita partikularren eta organismoen informazioa bildu ahal izateko gaikuntza ematea, baina zergak ezartzeko balio duen edozertarako"* [Hirugarren Z. O.; gauza bera diote, beste batzuen artean, honako hauek: 2009ko abenduaren 3ko Epaia (3055/2004 zk.ko kasazio errekurtsua), Hirugarren Z. O., eta 2009ko martxoaren 12ko Epaia (4549/2004 zk.ko kasazio errekurtsua), Hirugarren Z. O.]. Kasu honetan *begin bistakoa da 2006ko azaroaren 17an ONIF-Iruzurra Ikertzeko Bulego Nazionaleko Ekipo Nagusiak eskatu zuen informazioak zerga-ondorioak zituela. Errekerimenduan ere hala zegoen jasota: "ezinbestekoa da Zerga Administrazioako Estatuko Agentziako (AEAT) Ikuskaritza Zerbitzuek esleituta dituzten eginkizunak burutzeko"*.

*Auzitegi Nazionalaren uztailaren 15eko 3458/2010 Epaiak ere zera dio: "Zerga-ordainketan eragina izateak esan nahi du zerga betebeharra egon dagoela, eta, ustez, zergadunak ez duela betebeharra bete edo ez duela behar bezala bete; horregatik, informatzeko betebeharrak interes publikoaren eginbeharra burutzen du; hartara, errekeritu horren aurka ager daiteke, baldin eta errekerimenduak ez baditu baldintza horiek betetzen; izan ere, zerga-garrantzia lausotu egin baita, informazio eskaera orokorregia eta zehaztasun falta handikoa izateagatik"*.



*Horrez gain, epaiak dio "Zerga-ondorioa izatea, eskatutako informazioa baino lehenagoko balioa dela eta ez dela eskuratutako informazioaren emaitza; zerga-ondorioa gero ikusten bada, errekerimenduak ez du betetzen bere funtsezko betebeharra".*

Orain arte egin dituen irizpenetan Agentziak behin baino gehiagotan esan du zerga-ondorioa delako kontzeptuaren ondorioz datuen kalitatearen printzipioa ezarri behar dela ogasun publikoaren esparruan ere. Datuen kalitatearen printzipioa Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 4. artikuluan dago jasota:

*"Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko".*

Beraz, goiko araudiarekin bat, esan behar da argi dagoela egon badagoela lege gaikuntza. Zailena da datuen kalitatearen printzipioa betetzea, zerga-ondorioa zehaztea; eta horretaz arituko gara segidan.

## II

BFAko Ogasun eta Finantza Sailak BFAko Lehendakaritza Sailari eskatu dizkion dokumentuan honakoak dira: *Laguntza Batzordeak 2009ko eta hurrengo urteetan izapidetu dituen espedienteetako fakturak edo ordainagiriak.*

Dokumentazioak eduki ekonomikoa du, merkataritza trafikoko jarduera baten ondorioz egin da eta argi dago bertan esku hartu duten pertsonen buruzko informazioak, fakturatutako kontzeptuek eta bakoitzari dagokion zenbatekoak zerga-ondorioak dituztela. Arazoa sortu da BFAko Lehendakaritza Saila konturatu delako dokumentu batzuetan *"bereziki babestutako datuak daudela, norberarenak ed hirugarrenenak"*. Ikuskapenak aipatzen duen esparru subjektiboa ikusita, informazioa laga behar duen organoak osasun datuez arduratuta egon beharko du batez ere.

Eta horrekin lotuta esan behar dugu zerga-ondorioak dituzten datuak eskuratzeko ogasun publikoak duen lege gaikuntza ez dela heltzen historia klinikoan dauden datuetara. Arlo honetako araudi sektoriala argia da. Pazientearen Autonomia eta Informazio eta Dokumentazio Klinikoaren arloko Eskubideak eta Betebeharrak erregulatzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Legea ikusita argi dago hori.

41/2002 Legearen 15.2 artikulua historial klinikoaren helburua zein den xedatzen du, hau da, "osasun asistentzia erraztea, horretarako, mediku irizpideen arabera, uneoro benetako osasun egoera zein den jakitea ahalbideratzen duten datuak jasota utziz bertan."

Eta 41/2002 Legearen 16.1 artikulua zera dio: *"Historia klinikoa, batik bat, gaixoak osasun-laguntza ona izango duela bermatzeko bitarteko bat da"*. Artikulu horrek berak ezartzen ditu arau orokorrak dituen salbuespenak, eta historia klinikoa atzitzeko baimena ematen du osasunekoak ez diren beste helburu hauetarako:

*"3. Historia klinikoa helburu judizialekin, epidemiologikoekin, osasun publikoko helburuekin eta ikerketa edo irakaskuntzakoekin atzitzeko, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak, Osasunari buruzko 14/1986 Legeak eta kasuan-kasuan ezargarria den araudiak xedatutakoa bete beharko da. Historia klinikoa goiko helburu horietarako atzitzeko, pazientearen identifikazio datuak*



*babestu egin beharko dira, eta izaera kliniko-asistentziala duten datuetatik bereiztu, anonimatu ziurtatuta geratzeko moduan, ez bada pazienteak datuak ez bereizteko baimena eman duela. Agintaritza judizialaren ikerketak arau orokor horretatik kanpo geratuko dira, identifikazio datuak eta datu kliniko-asistentzialak batzea nahitaezkoztat jotzen bada; halakoetan epaileek eta auzitegien prozesu bakoitzean xedatzen dutena hartuko da kontuan. Historia klinikoko datuak eta dokumentuak kasu bakoitzaren berariazko helburuetarako baino ezingo dira atzitu.*

*5. Ikuskatze-, ebaluazio-, egiaztatze- eta planifikazio-funtzioak betetzen aritzen diren eta behar bezala egiaztatuta dauden osasun-alorreko langileek eginkizun hauek betetzeko izango dituzte historia klinikoak eskuragarri: osasun-laguntzaren kalitatea egiaztatzeko, gaixoaren eskubideak errespetatzen direla egiaztatzeko edo gaixoekin eta erabiltzaileekin edo osasun-administrazioarekin berarekin zerikusia duten zentroko betebeharrorako".*

Arau guzti horiek ikusita, esan dezakegu ezin dela historia klinikoko datuekin beste datu lagatzerik egin, bakarrik horiek egin daitezkeela. Halako datuak foru ogasunari lagatzeko nahikoa lege gaikuntzarik ez dago. Baina, gure ustez, ez da gauza bera gertatzen fakturetako informazioarekin. Urtarrilaren 2ko 4/2013 Foru Dekretuaren 6. artikulua arautzen du hori (zenbakia, data, diharduen profesionala, fakturatutako zerbitzuaren deskripzio orokorra, pazientearen izena, ordaindutakoa ...). Ikusi Zergei buruzko Lege Orokorraren 93.5 artikulua xedatzen duena:

*"5. Zerga Administrazioari zerga-ordainketan eragina duen informazioa eman behar dioten gainerako profesionalak ez dizkiote jakinarazi behar euren jardunean ezagutzen dituzten ondaretik kanpoko datu pribatuak, baldin eta horrela pertsonen edo familien ohorea edo intimitatea urratzen badute. Halaber, ez dizkiote jakinarazi behar aholkularitzako edo defentsako lanbide-zerbitzuak egitean euren bezeroei buruz ezagututako isilpeko datuak.*

*Profesionalak ezin diote heldu lanbideko sekretuari euren zerga-egoeraren egiaztapena eragozteko".*

Argi geratuenez ez dagoela behar beste lege gaikuntzarik ogasunari historia klinikoko datuak bidaltzeko, orain azertu behar dugu ea tesi horri (azaldu dugu jada tesiaren oinarri juridikoa) ñabardurarik egin ahal zaion kasu honek dituen inguruabarrak kontuan hartuta: berez historia klinikokoak diren datuak, kasu honetan bezala, fakturretan edo zerga egiaztapenerako ordainagiritan jasotzen badira.

### III

Kasu zehatz honetako inguruabarrak zorrotz aztertzeke kontuan hartu behar da honako alderdi hau: foru ogasunak eskatutako fakturak edo ordainagiriak laguntzak kudeatzeko administrazio espedienteetan daudela jasota. Eta laguntzen eskatzaileak berak aurkeztu dituelako daude hor, laguntza jaso ahal izateko egiaztagirak direlako; eta, horrela sartzen dira horrelako dokumentuak trafiko administratiboan. Interesdunak berak ematen dio administrazioari dokumentua, jakinda dokumentuan zer dagoen. Gainera, administrazioeko prozedura faseetan zehar, dokumentua organo batek baino gehiagok izapidetuko du, adibidez, kontu-hartzailtzak. Eta gerta daiteke kontuen auzitegiak ere fiskalizatu behar izatea.



Bestalde, dokumentuak gehiegizko informazioa badauka, eta interesdunak jaso duen atentzioaren deskribapen orokorra egiteko behar direnak baino datu gehiago baditu eta historia klinikokoak, esan behar da hori profesionalaren ardura dela, kasu honetan, odontologoarena, odontologoak egin behar duelako faktura (Fakturatzeko betebeharra arautzen duen Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuaren 1. artikulua). 4/2013 Foru Dekretuaren 6. artikulua fakturaren edukia ezartzen du, eta f) letran honakoa xedatzen du: "*Eragiketen deskripzioa. Zerga-oinarria zehazteko behar diren datu guztiak jarri behar dira (...)*". Hori ikusita, badirudi esaten duela deskribapen orokor bat egin behar dela, eta zerga-oinarria zehazteko kalkulua egiteko behar dela, zerga-oinarria derrigorrezkoa denean; derrigorrezkoa ez denean, informazioa generikoa izan daiteke.

Ez da ahaztu behar foru ogasunak ez duela eskatzen informazio intimorik (fakturak eta ordainagiriak eskatzen ditu), eta, datu babesaren ikuspegitik, txarto dagoena da faktura egiteko modua, gehiegizkoa delako, eta horren ondorioz gerta daiteke datu intimoak atzitzeko aukera ematea.

Gogoratu behar dugu Zergei buruzko Lege Orokorraren 93.5 artikulua (XXXXXko zergei buruzko arauak ere antzeko aurreikuspena du jasota 92.5 artikuluan) xedatzen duela profesionalak eman behar duten informazioa ez dela izan behar haien lanbidean ari direla jakiten dituzten datu intimoei buruzkoa; baina, aldi berean, sekretu profesionala gorde beharrak ere ez du esan nahi zerga egoera ezin denik egiaztatu. Lege horren asmoa da sekretu gorde beharra inork ez erabiltzea ikuskapenak saihesteko aitzaki moduan. Bestela, gerta daiteke fakturak bezalako dokumentuetan, eduki ekonomikoa baino ez dutenetan, historia klinikoko informazio asko ipintzea; eta horrek informazioa emateko betebeharra ahuldu egingo luke, eta, ondorioz, zerga ikuskaritza ere bai, zergadunaren esku geratuko litzakeelako ikuskaritza lana geldiarazteko edo atzeratzeko ahala.

Jurisprudentziak eginda dauka Zergei buruzko Legearen 111.4 artikuluen interpretazioa, eta aipagarria da Gaztela-Mantxako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2003ko ekainaren 2ko Epaia (Roj. STSJ CLM 2055/2003). Hona xedatzen duena:

*"Hain zuzen ere, hasteko, esan behar dugu errekerimendua egin dela errekeritua izan den medikuaren egoerari buruzko zerga-egiaztatze prozedura baten baitan; eta, beraz, ezin dela bistatik galdu 111.5 in fine artikuluetan xedatutako agindua, esaten duena profesionalak ezingo dutela sekretu gorde beharraren aitzakia erabili oztopoak jartzeko haien zerga egoera egiaztatze jardueri. Arauaren xedea da sekretu medikua edo sekretu gorde behar orokorra ez bihurtzea aitzakia edo traba gaindiezina zerga administrazioarentzat eta, ondorioz, zerga administrazioak ezin burutu ahal izatea profesionalen fiskalizazioa edo ikuskaritza; eta, gure iritziz, jarduera motaren edo errekerimenduaren testuinguruaren arabera interpretatu behar dira pazienteen intimitate pertsonalari behar bezala babesteko eskakizunak, ahaztu gabe -eta horretan indarra jarri nahi dugu- errekerimendua zergadun jakin baten zerga egoera egiaztatze ireki den prozedura baten baitakoa dela eta ez beste era bateko fiskalizazio prozedura baten baitakoa".*

...

*"Baina, hala ere, argi dago historia klinikoan jasotako osasunari buruzko datu pertsonal pribatuaren gainean medikuak duen sekretu eskubidea/betebeharra bertan behera gera daitekeela eta geratu egin behar dela -pazienteak adostasunak emandako kasuez gain- legez babestutako interes publiko batzuk badaude tartean,*



*eta interes horiek babesteko datu horiek behar badira; baina halako atzipenak legezkoak diren ala ez ebazteko, jokoan dauden ondasun eta eskubideak haztatu beharko dira, hartara, eskubide bat murrizten denean beste eskubide edo interes juridiko bat babestea proportzionala izateko, eta behar den neurrian baino ez murrizteko, eta oinarrizko bermeak betez”.*

Zergei buruzko XXXXX foru arauaren 2.2 artikulua eskubideak haztatu beharra dagoela adierazten du, eta, berariaz aipatzen du proportzionaltasuna:

*“Zerga-sistemaren aplikazioa proportzionaltasunaren eta eraginkortasunaren eta betebeharrak formalak betetzetik eratorritako zeharkako kostuak mugatzearen printzipioetan oinarrituko da; zerga-sistema aplikatzean zergapekoen eskubideak eta bermeak errespetatu behar dira”.*

Horrekin lotuta, Auzitegi Gorenaren 1991ko uztailaren 2ko Epaiak (7. O. J.) ebatzi zuen eduki ekonomikoa zuen dokumentazioa eskatzea ez zela desproporcionatua. Hona:

*“Labur esanda, sekretu medikua sekretu profesional mota bat da, oinarrizko eskubideak babesteko modu bat, baina berez ez da oinarrizko eskubide bat, betebeharrak baino, hau da, 1/1982 Lege Organikoaren babes esparruaren aurkako bidegabeko esku-hartzeak eragozteko; helburua du, eta betebeharrak horrek dituen mugek — zerga administrazioari nahitaez eman behar izatea bezeroen identitateari buruzko eta bezeroei emandako zerbitzuagatik kobratutako zenbatekoei buruzko datuak — ez dute ukitzen intimitaterako eskubidearen oinarrizko edukia”.*

Auzitegi Gorenak honako hau ere adierazi zuen epai horretan: *“intimitaterako eskubidea eta zerga ikerketarako ahalak aldi berean eta bateratuta ezarri behar diren bi eskakizun direla, eta ez bata ez besteak ez dutela jasango bata bestea behar bezala asebetetzeko beharrezkoa dena baino kalte handiagoa. Beraz, bi balio horietako bat bestearen gaintik jartzen dituen konponbideak baztertu egingo dira, ez direlako zuzenbidearen arabekoak”.*

Auzitegi Gorenaren epaiak honakoa ere xedatzen du: *“bezeroen identitatea lanbide sekretuaren esparrutik kanpo uzteak ez du intimitate pertsonalerako printzipioa urratzen, eta bezeroek jasotako zerbitzuaren truke ordaindutako zenbatekoei buruzko datuak uzteak ere ez”.*

Lege-arau eta jurisprudentzia horren guzti horren argitan, esan behar da Ikuskaritza Koordinatze Zerbiztuak eskatutako fakturak eta ordainagirik betetzen dituztela informazioa garrantzitsua eta beharrezkoa izan behar dela dioten betekizunak; beraz, ezin da esan eskatutako datuak gehiegizkoa direnik; eta gehiegizkoa badira, errua profesionalarena da. Gure ustez, organo lagatzaileak baldin badaki zein fakturatan dauden halako datuak, datu intimoak kenduta eman beharko ditu fakturok. Gainontzean, ezin izango da lagatzailearen gainean utzi informazioaren konfidentzialtasunaren ardura, arazoa ez delako zein informazio eskatu dioten, jardunbide desegokia baizik.

Bestalde, ezin izango zaio lagatzaileari eskatu berak erabakitze zerk duen zerga-ondorioa eta horren arabera datuak laga foru ogasunari. Izan ere, kontsulta-idazkiak zera dio: *“informazio errekerimenduak zerga arloan garrantzia duen edozein informazio ere eskatzen du, garrantzitsua bada zerga arloko ustezko irregulartasunak antzemateko.”* Gure ustez, administrazio adituak esan behar du (kasu honetan Ogasunak) zerk duen zerga-ondorioa, berak dakielako horretaz. Beraz, Ogasunak du eskubidea hobeto



zehazteko ardura , zerga-ondorioa duen informazioa bakarrik laga daitekeelako interesdunaren adostasunik gabe.

Bide batez, gogora ekarri behar dugu zerga arloko informazioa informazio erreserbatua dela, hala xedatzen dutelako Zergei buruzko Lege Orokorrak (95. artikulua) eta Zergei Buruzko XXXXX Foru Arauak (94. artikulua). Beraz, horren arabera, zerga informazioa ezin zaie hirugarrenei laga, eta lagatzekotan, bi arau horietan dago xedatuta zein kasutan. Eta foru ogasunak nahi gabe eskuratzen duen informazioa ere informazio erreserbatua izango da, nahiz eta zerga-ondoriorik ez izan.

#### IV

Kontsulta idazkiaren bidez Agentziari egindako beste galdera bat da ea errekerimenduak oinarri sendoa duen eta ea nola komunikatu behar diren datu pertsonalak.

Lehenengo galderari erantzuteko, 2006ko otsailaren 14ko Epaia aipatuko dugu. Hona bertan ebatzitakoa:

*"Oinarri sendoa izateak esan nahi du ebazpena ondo arrazoituta egon behar dela eta argi ikusi behar dela Zuzenbidea zentzuz ezarri zaiola dena delako kasuari, edonork ulertzeko moduan zein arrazoi dauden erabakiaren atzean; eta argi utziz ez dela jokatu iritzira eta bidegabekeriaz. Informazio eskaera mugatua izan behar da, zerga ikuskapena eta zerga kudeaketa egiteko behar-beharrezkoa dena bakarrik. Zergei buruzko Lege Orokorren 113. artikulua (uztailaren 20ko 25/1995 Legearen idazkuntzaren arabera) hala izan behar dela dio, ikuskapen ahalak eta herritarren eta entitateen lagutzeko betebeharra bi betebeharrekin lotzean:*

*Zerga administrazioak bere jardunean eskuratzen dituen txostenek edo aurrekariak a) izaera erreserbatua dute; eta b) administrazioak kudeatu behar dituen zerga edo baliabideak behar bezala gauzatzeko bakarrik erabili ahal izango dira, kasu batean izan ezik: datu lagatzearen xedea izatea lege horretan bertan jasotako bost salbuespenetako bat, hau da, adibidez, delituak ikertzea edo jazartzea edo beste zerga administrazio publiko edo legebiltzar batzorde batzuekiko lankidetza, lege-manu horretako baldintzen arabera beti ere. Beraz, hori guzti hori aintzat hartuta, eta eskatutako informazioa zerga behar bezala ezartzeko bada, bat gatz errekurritutako epaia dioenarekin erabilerari buruz, hau da, ustezkoa, zeharkakoa edo balizkoa izan daitekeela".*

Gure ustez, informazio errekerimenduaren oinarrian dauden arrazoiak dira, batetik, ikuskatu nahi den arloan iruzurra egon dagoela, eta eskatu dituzten datuek zerga-ondorioa dutela. Beraz, edonork esango luke informazio errekerimendua bidezkoa dela. Hala ere, gogoan izan behar da abiapuntua dela informazioak zerga-ondorioa duen ala ez, eta hori errekerimenduaren aurreko kalitatea bat da, ez errekerimenduaren ondoriozkoa; beraz, eskabideak datu zehatzak eskatu behar ditu eta ez eskaera orokorrak ("beste edozein informazio" eta halakoak), bestela informazio eskabidea eta eskabidearen oinarrian dauden arrazoiak ezingo dira uztartu.

Bigarren galderari erantzungo diogu orain: ea nola komunikatu behar diren datu pertsonalak. Kontsulta idazkiak dio dioenez, "eskatutako informazioa Ikuskapen Zuzendariordetzako zerga agente batek jasoko du eta dagokion diligentzia egingo du".



XXXXX Aldundiaren urtarrilaren 24ko 5/2012 Foru Dekretuak arautzen du zerga agentearen figura, eta 2.2.c artikuluan dio zerga agenteak ikuskatzailatzat joko direla. Beraz, guk uste dugu informazioa jasotzeko baimenduta daudela.

Bestalde, kontuan izan behar dugu ukitutako fitxategiek goi-mailako datuak dituztela (informazioa jasotzen duen fitxategiak "zerga ikuskapena" izena du eta goi-mailako fitxategia da izatez). Beraz, goi-mailako segurtasun neurriak hartu beharko dira. DBLO garatzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua onartzen duen abenduren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 101. artikulutik 104. artikulura bitartean daude jasota zein diren goi-mailako segurtasun-neurriak.

Amaitzeko, eta irizpen honetan jaso ditugun gogoetak ikusita, esan behar dugu XXXXX Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak eskatutako informazioa lagatzea zilegi dela, bat datorrelako datu babesaren arloko araudiarekin; edozelan ere, bete egin beharko dira datuen kalitatearen eta segurtasunaren printzipioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 21a